



DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, MERKATARITZAKO ZERBITZUBURUAREN LANPOSTUAN ARITZEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIO BIDEZ, IRUÑEKO UDALEAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak deialdiak onartu zituen 2018ko apirila 18koan

Hona deialdi hau arautuko duten

OINARRIAK

Lehena.- Deialdia iragartzen da izangai-zerrenda bat hautaproben bitartez osatzeko, MERKATARITZAKO ZERBITZUBURU lanpostua betetze aldera, Iruñeko Udalean aldi baterako gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenek – zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

- b) Hemezortzi urte beteak izatea eta gainditu gabe izatea nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina.
- c) Ibilgailuak gidatzeko B motako baimena edukitzea.
- d) Unibertsitateko Diplomatu edo Graduatu, Ingeniari Tekniko, Arkitekto Tekniko edo horien baliokidea den titulu bat edukitzea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo halakoak erdiesteko maneran egotea.
- e) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea, bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.
- f) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizita ere.



Espainiarrak ez diren izangaiek zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

2.2. Deialdi honi dagokion merkataritzako zerbitzuburu lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuak betetzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

2.3. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauetako 2.1. c), 2.1. d) letretan eta 2.2 zenbakian eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.4. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena.- Eskabideak.

3.1. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izanen da, behin deialdi hau iragartzen duen aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Deialdiaren testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es) eta Herritarrendako Arreta bulegoetan.

3.2. Deialdian parte hartzeko eskabideak Iruñeko Udalaren edozein Erregistrotan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

Eskabideak I. eranskinean jasotako ereduari lotuko zaizkio. Eredu hori eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta Bulegoetan eta Internet bidez, www.pamplona.es webgunean.

Parte hartzeko eskabidean izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, betiere ezertan galarazi gabe kontratatuak izateko deituak direnean jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak aurkezteko beharra:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, aldi baterako kontrataziorako deialdiaren 2.1. a) letran eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
- Ibilgailuak gidatzeko B motako baimenaren fotokopia.
- Unibertsitateko Diplomatu edo Graduatu, Ingeniari Tekniko, Arkitekto Tekniko edo horien baliokidea den tituluaren fotokopia.



- Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) edo horren baliokide den titulu baten fotokopia, halakorik behar izatera.
- Ziurtagiria, izena emateko eskubide tasa dela-eta 11,00 euro Iruñeko Udalarari ordaindu izana egiaztatzeko. Tasa hori ordaindu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.

Tasa Iruñeko Udalak honako finantza entitate hauetan dituen kontuetan ordain daiteke, haietan dirua sartuz edo haietara transferentzia eginez: Caixabank (ES04 2100 2173 8102 0022 2762), Laboral Kutxa (ES22 3035 0039 3403 9090 0005) eta Nafarroako Rural Kutxa (ES07 3008 0001 1411 0344 7429). Bestela, Udaleko Diruzaintzan (Merkatuko kalea 7-9, 2. solairua) ere ordaindu daiteke. Ordainagirian ezinbestean agertuko dira honako datu hauek:

- Izangaiaren izen-abizenak.
- NAN / IFZ.
- Ordainketa zein kontutan egin den eta horren zenbakia.
- Kontzeptua: Merkataritzako Zerbitzibururako deialdia

Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan salbu, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, haien eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

3.3. Desgaitasun bat aitortuta duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatu ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu zer-nolako desgaitasuna duten eta eskatutako egokitzapenak.

Laugarrena.- Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta zerrenda ikusgai paratuko da Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es) eta Udalaren iragarki-taulan –Udaletxean bertan–, zerrendan izangaien izena, abizenak eta NANA adierazita.

Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (izena, abizenak eta NANA agertuko dira, eta baztertuen kasuan, bazterketaren zergatia), eta agindua emanen du hori jendaurrean paratzeko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako lehenengo hautaprobea egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.



Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da (izena, abizenak eta NANA adierazita) eta Iruñeko Udalaren webgunean nahiz iragarki-taulan argitaratuko da, hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa –edo Administrazioak jasotakoa– aztertzean ondorioztatzen bada eskatutako baldintzaren bat ez dutela betetzen, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte.

Bosgarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Gerardo Hurtado Jauregui jauna, Iruñeko Udaleko Ogasun, Gizarte Ekonomia, Enplegu, Merkataritza eta Turismoko zuzendaria.

Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Alorreko zuzendari bat.

Epaimahaikidea: Maite de Juan Romaniega andrea, Gasteizko Udaleko Merkataritzako Zerbitziburua.

Ordezkoa: Gaian aditua den teknikari bat.

Epaimahaikidea: Felipe David Valcarcel Samonete jauna, Nafarroako Gobernuko Administrazio Publikoko teknikaria.

Ordezkoa: Maite Catalán Oiz andrea, Iruñeko Udaleko Ogasun, Gizarte Ekonomia, Enplegu, Merkataritza eta Turismoko idazkari teknikoa.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Iñigo Anaut Peña jauna, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendaria.

Ordezkoa: Arantxa Campo Mayo andrea, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako idazkari teknikoa.

5.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorreko Giza Baliabideetako zuzendaritzari jakinarazi hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 2ko 40/2015 Legean horretarako aurreikusitako dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzeko, halako inguruabar horietako bat gertatzen bada.



Epaimahaiaren osaera aldatzen bada, epaimahaikideek parte ez hartzeko edota haiek errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean emanen da horren berri izangai onartuen eta baztertuen zerrendekin batera.

5.3. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

Epaimahaia ezin izanen da ez eratu, ez jardun gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe, eta, betiere, epaimahaiburua eta idazkaria edo haien ordezkari direnak bertan daudelarik.

5.4. Epaimahaiak gehiengo ebatziko dituen deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

Seigarrena.- Hautaprobaren nondik-norakoak eta balorazioa.

6.1. Lehiaketa-oposizioa 2 fasetan gauzatuko da: oposizio-aldia, lehenbizi, eta lehiaketa-aldia, gero, oinarri hauetan adierazitakoaren arabera.

6.2. Oposizio-aldia: Hautapen-prozesua jarraian deskribatzen diren bi proben bidez egingen da.

6.2.1. Lehenengo proba. Izangaiek proba teorikoan test erako galderak dituen galdetegi bat erantzun beharko dute idatziz, Epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran. Galderak Deialdi honen II. eranskineko gaitegian agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira. Hiru aukera egonen dira galdera bakoitzari erantzuteko, eta horietako bat baino ez da baliozkoa izanen.

Proba honek gehienez ere 30 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortu akatsak aukera anitzeko erantzunak dituzten galderetan. Edozein kasutan, Epaimahaiak hautaprobaren zuzenketari ekin aurretik onetsiko ditu ontzat joko dituen erantzunak.

Proba gaindituko dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (15 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

Bigarren probarako deituko dira lehenengo proba gainditu eta notarik altuenak lortzen dituzten 25 izangaiek. Izangai batzuk 25. postuan berdinduta izanez gero, horiek guztiak igaroko dira hurrengo probara.

Deialdi honen xede den zerrenda agortuko balitz, izangairik ez egoteagatik lanerako kontratatze moduan, deialdi osagarriak egin ahalko dira lehenengo proba gaindituta (gutxienez 15 puntu) eduki eta bigarren probara deituak izan ez diren izangaiek proba praktikoa egin dezaten.

Kasu guztietan, deialdi osagarri horiek gainditzen dituzten izangaiek lehenengo deialdian gainditutakoen atzetik egonen dira kontratazio-zerrendan.

6.2.2. Bigarren proba. Proba teoriko-praktikoa: Izangaiek garatzeko proba bat edo gehiago egingen dituzte, praktikoa edota memoria-proiektu formatuak, Deialdi honen II. Eranskineko gaitegian agertzen diren gaien ingurukoak. Izangaiek memoria-proiektua eginez gero, ahoz aurkeztu eta defendatu beharko dute Epaimahaiaren aurrean, zehaztuko den datan.



Epaimahaiak zehaztuko du proba honetako ariketak egun bakarrean edo desberdinetan eginen diren, baita horien iraupena ere, ezarritako edukien arabera.

Proban gehienez ere 70 puntu eskura daitezke. Probaren balorazio-irizpideak hura hasi aurretik zehaztuko dira. Proba praktikoan guztira ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (35 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek gaindituko dute.

6.2.3. Proba bakoitzerako deialdi bakarra eginen da, eta izangaia Nortasun Agiri Nazionala, AIZ edo pasaportea aldean dutela azalduko dira haietara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaia baztertuta geldituko dira.

6.2.4. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoen aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

6.2.5. Proba bakoitza egin ondoren, izangai bakoitzaren emaitzak argitaratuko dira Udalaren webgunean eta iragarki-taulan, izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita.

Proba bakoitzaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistroan eskabidea aurkeztuta. Behin erreklamazioak ebatzita, eta hala badagokio, egin beharreko hurrengo probaren eguna eta tokia adieraziko dira.

6.3. Lehiaketa-aldia: ez da baztergarria izanen, eta gehieneko puntuazioa 30 puntu izanen da, honako baremo honekin bat:

6.3.1. a) Antzeko eginkizunetan emandako zerbitzuak (gehienez, 15 puntu).

1. Edozein administrazio publikotan emandako zerbitzua, B mailako, horren ordeko edo goragoko mailako Merkataritzako Zerbitzuburu, Merkataritzako Teknikari edo antzeko lanpostuan: puntu 1 urte bakoitzeko.
2. Merkataritza Teknikari lanpostuan administratibotik kanpoko enpresetan emandako zerbitzuak, 1. edo 2. kotizazio-taldeko kategorian: 0,80 puntu urte bakoitzeko.

Oharrak:

- a) Urte-kopurua osoa ez bada, zerbitzuan emandako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio (zenbatu beharreko gutxieneko aldia: hilabete oso bat).
- b) Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia deskontatuko da.
- c) Ez dira baloratuko deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren emandako zerbitzuak.
- d) 6.3.1.a) 1 eta 6.3.1.a) 2 zenbakietan lortutako puntuazioaren batura gehienez ere 10 puntu izanen da.

6.3.1.b) Zerikusia duten prestakuntza-ekintzetan parte hartu izana (gehienez, 7 puntu).



1. Masterrak, graduondokoak edo horien baliokideak, merkataritza sustatzeko, laguntzeko edota dinamizatzeko zerbitzu, plan, programa, proiektu eta jarduketan kudeaketa eta garapenari buruzkoak (60 ECTS): gehienez ere 8 puntu.
2. Merkataritza sustatzeko, laguntzeko edota dinamizatzeko zerbitzu, plan, programa, proiektu eta jarduketan kudeaketa eta garapenari buruzko ikastaroetan parte hartzea (15 ECTS – 1 puntu): Gehienez, 6 puntu.

Oharrak

- a) Ez dira kontuan hartuko ordu-kopurua adierazita ez duten ikastaroak.
- b) 6.3.1.b) letrako 1 eta 2 zenbakietan lortutako puntuazioaren batura gehienez ere 10 puntu izanen da.
- c) Puntuazio bera baliatuko da baloratzeko erakunde antolatzaileez bezainbatean ezarritako baldintzak bete ez baina Administrazioak aginduta edo haren oniritziarekin eginak diren prestakuntza-saioretan parte hartu izana, halako prestakuntza-saiotzat joko direlarik espresuki sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatutakoak.
- d) 1 eta 2 zenbakien barnean ez dira baloratuko titulu akademiko bat eskuratzeko ikasketak, ez unibertsitatekoak ezta unibertsitatez bestekoak ere.

6.3.1.c) Honako hizkuntza hauen ezagupena, ofizialki egiaztatuta (gehienez, 10 puntu):

1. Euskara: Gehieneko puntuazioa, 10 puntu.
 - a. B2 maila: 8 puntu
 - b. C1 maila: 10 puntu
2. Ingelesa: Gehieneko puntuazioa, 8 puntu.
 - a. B2 maila: 6,4 puntu
 - b. C1 maila: 8,0 puntu

Tituluak eta egiaztagiria Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat baloratuko dira. Maila horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 ebazpenean jasota daude, zeinak ezartzen baititu euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera (2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa).

Hizkuntza bakoitzean maila gorenari dagokion puntuazioa emanen da. Ez dira inolaz ere batuko hizkuntza bati dagozkion bi maila edo gehiagoko puntuazioak.

Era berean, hizkuntzen ezagupenari buruzko 6.3.1 c) idatzi-zatiari eman beharreko puntuazio osoa gehienez ere 10 puntu izanen da.

6.3.2. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta atal bakoitzerako aipatzen den gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.



Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gainean.

Merezimenduak hautaprobak egin ondoren baloratu eta argitaratuko dira, izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita. 6.2 oinarrian ezarritako hautaproba guztiak gainditu dituzten izangaien merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko, bi egun balioduneko epea izanen da, azken probaren (bigarrena) emaitzak argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Merezimenduen balorazioaren aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Zazpigarrena.- Gainditu dutenen zerrenda, izangai-zerrenda eta deia.

7.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, Epaimahaiak Iruñeko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko du gainditu dutenen zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira). Halaber, Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dio zerrenda, onetsi dezan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

Izangaiek lortutako puntuetan berdinketarik bada, bigarren proban puntuazio handiagoa lortu dutenen alde joko da, eta berdinduta segituz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Izangai-zerrendak izangaiek deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei osasun-azterketa bat eginen zaie, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

7.2. Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko du izangai-zerrenda, izangaiek deitzeko hurrenkerari lotuta (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira), eta ikusgai paratuko da Udalaren iragarki-taulan eta www.pamplona.es webgunean.

7.3. Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa, honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria aurkeztuta, edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua.

Zortzigarrena.-Errekurtsioak.



Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintza zein organok egin eta horri zuzendua, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsuak aurkez daitezke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsuak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazpena egiteko.

Iruña .-Iñigo Anaut Peña jauna, Giza Baliabideetako zuzendaria.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, MERKATARITZAKO ZERBITZUBURU LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA

Desgaitasunaren egiaztapena (hala badagokio, soilik).

Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.

Nire desgaitasuna dela-eta, eranstean dudana egokitzea eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean).

AZALPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina espediente bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobaren bidez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian, MERKATARITZAKO ZERBITZUBURU lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritze aldera. Deialdia 2018ko 86. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 7koan argitaratu zen.

DATUEN BABESA. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakitera ematen dizugu datu pertsonalak Iruñeko Udalaren "Udal Langileak" izeneko fitxategian bilduko direla, hautapen-prozesua kudeatze aldera. Halaber, jakitera ematen dizugu baduzula aukera datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubideak gauzatzeko, Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia, 2, 31001 Iruña) edo Egoitza Elektronikora (www.pamplona.es) joaz.

Iruñean, 2018koaren(e)an
(Sinadura)



II. ERANSKINA

- 1.- 7/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa, Txikizkako Merkataritza antolatzeari buruzkoa.
- 2.-17/2001 Foru Legea, uztailaren 12koa, Nafarroako Merkataritza arautzen duena.
- 3.- 13/1989 Foru Legea, uztailaren 3koa, Merkataritza Ez-egonkorrari buruzkoa
- 4.- 1/2004 Legea, abenduaren 21ekoa, Merkataritzako Ordutegiei buruzkoa.
- 5.- Merkataritza-jarduerak eta informazioaren gizartea: merkataritza elektronikoa eta bere arauketa. 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazioaren eta Merkataritza Elektronikoaren Gizartearen Zerbitzuei buruzkoa: I. titulutik VI.era, eta Eranskina: Definizioak.
- 6.- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa: 7/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzkoa: I., II. eta III. tituluak.
- 7.- Udalaren antolamendua. Udalaren eskumenak. Iruñeko Udalaren antolaketa. Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorraren egitura, antolaketa eta funtzioak: Ogasunaren Eskumenak DAL 30-OCT-17 (1/GT) Alkatetza-dekretuaren 10. puntua.
- 8.- Iruñeko Merkataritzako Plan Estrategikoa 2017–2021 aldirako
- 9.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 10.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Atariko titulua. I., II., III., IV. eta VI. kapituluak.
- 11.- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 12.- Nafarroako Gobernuaren Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (Garapen Ekonomikoa).
- 13.- Nafarroako Gobernuaren 2018-2020rako plana, Hurbiltasunezko Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko .